



HOBEEKUNTZAK FORMULARIOEN TOOLKIT-EAN – 2020 urtea

- Tramitagune-PLATEAN v2020_01 eta 02 – 2020ko ekaina
 - Errepikapen-taldearen erregistroak lehenesteko funtzionalitatea hobetu da, orain taula bakoitzerako konfiguratu daitekeena.
 - Identifikazio-datuen eta prozeduraren datuen balidazioak eta dagozkien errore-mezuak birkokatu dira, orain dagozkien lekuan kokatu direla.
 - Atzerriko herrialdeetarako posta-datuen baliozkotzeak berrikusi dira.
 - Erantzukizunpeko adierazpenen portaera aldatu da; orain, markatu gabe agertuko dira.
 - Eskara gordetzeko botoiaren testua aldatu da erabilgarritasuna hobetzeko.
 - Formularioaren zirriborroa eta formularioaren txantiloia gordetzeko botoiak erakusteko/ezkutatzeak aukera gaitu da.
 - Eskara presentzialaren formularioan "Nire profila" osagaia erakusteari utzi zaio.
 - Inprimakiari erantsitako dokumentuak gehitzeko funtzionalitatearen diseinua hobetu da, intuitiboagoa izan dadin.
 - Laguntzarako *tooltip* generiko bat gehitu da faktura-dokumenturako.
 - Erantsitako dokumentuetan sartutako sinaduren detekzioa gehitu da, haiei buruzko informazio guztia gordetzeko eta dokumentu horiek hobeto kudeatzeko espedientea izapidetzen den bitartean.
 - Toolkit-eko informazioa aldatu da datuen babesari dagokionez, Tratamendu Jardueren Erregistroko informazioa duen atal berri bat erakutsiz.
 - Izapidetze elektronikorako eta aurrez aurreko izapidetzerako formularioak bateratu dira, bete daitezkeen PDFen ordez Toolkitaren bidez sortutako web-formularioak erabiliz. Inprimaki horiek QR kode bat dute, Administrazioaren sarreran papera ezabatzea errazten duena.

- Tramitagune-PLATEAN v2020_03 – 2020ko urria:
 - Eskabide eta ekarpen presentzialetan, erabiltzaileak sartzen duen data erregistro-liburuan erregistro-zenbaki jakin baterako agertzen denarekin balidazioa sartu da.
 - Posta elektronikoko helbidearen balidazio bikoitza gehitu da, datu hori sartzean izan daitezkeen erroreak minimizatzeke.
 - Eskabideari dokumentuak eransteko pantailan ohar bat gehitu da, eskatzaileari datuak kontsultatzeari uko egiteko eskubidea duela jakinarazteko, bai eta eskubide hori baliatzeko modua ere.
 - Posta elektronikoko bidezko berrespen-mezu bat gehitu da, erregistro-frogagiria eta PDF formatuko eskabidearen dokumentua erantsita, herritarren eskaera/ekarpen elektronikoko edo presentzial bakoitzerako.
 - Mekanismo bat ezarri da izapidegileak zuzentzeko dokumentuak adieraz ditzan; horrela, interesdunak zuzenketa egin behar duenean, izapidegileak aldez aurretik zuzentzeko modukotzat markatutako dokumentuak soilik erakutsiko zaizkio.
 - XLNet sistemarekiko autentifikazioaren ordeztu Giltza sistema erabili da, herritarrek Toolkitean sartzeko. Tramitatzaileen barneko sarbideetan XLNet bidezko sarbidea mantenduko da.